



Usurbilgo Udala

## 2018KO MARTXOAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Gartzia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

**Ezin-etorria adierazi du:** Alaitz Aizpurua Labakak

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko martxoaren 27an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### **1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO OTSAILAREN 19TIK MARTXOAREN 9RA (2018/0154-2018/0221).**

Alkatetzak 2018ko otsailaren 19tik martxoaren 9ra bitartean (2018/0154–2018/0221) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

## **2.- USURBILGO UDAL HILERRIAREN ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Jone Urdanpilletak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Zerbitzuetako batzorde informatzailetik diktaminatuta datorren gaia dela dio. Araudiaren aldaketari buruz esan du hasierako onespena 2017ko azaroaren 28ko udalbatzarrak eman ziola eta ondoren jendaurrean egon den epean ez dela alegaziorik aurkeztu. Hala ere, udaletik ikusi dela dio arautegian zuzenketa batzuk egin beharra zegoela. Zuzenketa erabat teknikoak izan direla jakinarazi du, lurperatzeko ordutegiari buruzkoak, hain zuzen ere.

Idazkariak argitu du hasieraz jendaurrean jartzen denean, Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen dela jendeak horren berri izan dezan eta orain, berriz, testu definitiboa osorik argitaratzen dela.

Batzarkideek, Zerbitzuak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

**“Esp. zk.: HZ.17/2017-0559**

### **Aurrekariak**

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2017ko azaroaren 28an egindako ohiko bilkuran Usurbilgo hilerriaren erregimen eta funtzionamendu araudiaren aldaketa hasieraz onartzea eta aipatu ordenantzaren aldaketan jendaurreko informazioa eta interesdunen entzunaldia abiaraztea, gehiengoz onartu zuen.


Epe honen barruan, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hilerriko lurperatze ordutegiak behar bezala finkatu eta argitzeko, hilerriaren erregimen eta funtzionamendu araudian egokitzapenak egitea erabaki du Usurbilgo Udalak.

### **Kontutan harturik**

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituena, 49. artikulua araberako Udalbatza Plenoari dagokiola ordenantzari behin betiko onarpena ematea.

Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak 2018ko martxoaren 20an egindako ezohiko bilkuran, alde batetik Jone Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar eta Fermin Orue-Echevarriaren ALDEKO botoekin eta, bestetik, Mirari Azurmendiren ABSTENTZIOAREKIN, Usurbilgo udal hilerriaren erregimen eta funtzionamendurako araudiaren aldaketa onartuz egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:



Usurbilgo Udala

## ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Usurbilgo hilerriaren erregimen eta funtzionamendu araudia behin betikoz onartzea, proposatutako egokitzapenekin. Araudia atxikitzen da.

**BIGARRENA:** Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

### 3.- MOZIOA: TROIAKO PASABIDEA GAUZATZEA.

Alkateak jakinarazi du puntu hau Antolakuntza batzordean tratatu zela eta nahiz eta ez zen onartua izan, Udalbatzarrera ekartzea erabaki zutela.

Ondoren, Josune Urkolari hitza eman dio.

Josune Urkolak mozioa irakurri du.

Jarraian, Josune Urkolak argitu du batzordean aipatu zuten bezala, mozioan alkatea esaten dutenean udal gobernua dela.

Halaber, esaten dutenean Udalean ez dutela inolako informaziorik jaso, beraiek Troiako pasabideari buruzko lehenengo albiste Noaua! aldizkarian irakurri zutela adierazi du eta, ondoren, egin zela batzordea.

1. Alkateak eskatu du Josune Urkolak esandakoa aktan jasotzea, hau da, EAJ-PNVk ez duela udaletik informaziorik jaso, eta lehenengo informazioa Noauatik jaso dutela. Alde nabarmena dagoela uste du, gauza bat esan edo bestea esan. Oso gogorra egiten zaiola esan du; arazoa balitz egun gutxi batzuk lehenago Noauan publikatu dela zerbait gero batzordera ekarri dena, baina ez dela hori eta ez dakiela dio nola egin daitekeen, batetik, mozio hau aurkeztu eta, bestetik, herriko komunikabide nagusian, Noauan albiste oker bat zabaltzea. Mozioan esaten dena gezurra dela uste du eta erabat salagarria.



Usurbilgo Udala

Jarraian, gai honekin zer gertatu den kontatu du eta zergatik iruditzen zaion ez dela inondik ere zilegi EAJk aurkezten duen kritika.

Gai hau ez dela oraingoa, aspalditik datorrela dio, legegintzaldi hasieratik edo. Hasieratik esan zutela dio beraien programan eta eginkizunetan hau zela landu nahi zuten gaietako bat, Usurbilgo puntu beltzen tratamendua eta, bereziki, Troiakoa. Oso zaila dela dio administrazio desberdinak elkarlanean jartzea. Gai honetan bilerak egin dituztela esan du udal honek bultzatu eta antolatuta Foru Aldundiko Mugikortasun sailarekin, Foru Aldundiko Bide Azpiegitura sailarekin eta Eusko Jaurlaritzaren menpean dagoen Eusko Trenbideakekin. Oso neketsua dela esan du hirurak elkartu eta gainera proiektu bat bultzatzea, exekuzio proiektu bat egiteraino eramatea.

Gaineratu du urtarrilaren 19an bilera bat izan zutela Garraio sailburuordearekin eta ETSko zuzendariarekin eta esan zitzaizela proiektu hori egitearekin batera prest zeudela proiektu horren egikaritzean parte hartzeko, baita ekonomikoki ere. Halere, hauek bilera horretan esatea Foru Aldundiak esan ziela ez zuela proiektu hori finantzatzeko, lehen mailako albistea iruditu zitzaizela azpimarratu du, eta ez soilik udalarentzat, baizik eta Usurbil osoarentzat.

Azpimarratu du legealdi honetan mugikortasuna lantzen aritu direla prozesu parte-hartzaile batean eta prozesu horretan parte hartu dutela dio ehundik gora herritarrek. Bertan, esku artean duten honen berri herritarrekin batera landu dutela adierazi du. Hautetsiei dagokienez, ardura badutela iruditzen zaio egiten dutenaren berri emateko, baina era berean, ardura badutela uste du egiten dutenaren berri herritarrekin partekatzeke.

Jarraitu du esanez bilera horrek eman zuenaren berri ematea erabaki zutela, batetik, komunikabideetan ematea, kasu honetan, Noauan eta, bestetik, hurrengo hirigintza batzordean beste hautetsiei honi buruzko informazio zehatza ematea. Ezin zutena jakin da Noauak zenbateko denbora tartearrekin emango zuen berria. Halere, hautetsiei lehen eskuko informazioa eman zitzaizela azpimarratu du. Gainera, proiektu hau dela-eta, esan zitzaizela dio udal ordezkariak batera joan beharko luketela eta kolaborazioa eskatu zitzaien, Foru Aldundian zituzten harremanak erabiltzeko eskatuz, eta ea horrela denen artean irtenbide duin bat ematea lortzen duten. Jaso duten erantzuna izan da mozioan esaten dena, hau da, ez dutela inolako informaziorik jaso. Hau ikusita ezin ulerturik geratu zela dio zer dela eta eman zaien erantzun hori.

Mozioan ere esaten dela dio, nahiz eta orain zuzendu duten, alkateak gauzatu ezinezko proiektua bultzatu duela. Honen aurrean adierazi du alkateak ez duela inolako proiekturik egin eta udal gobernu taldeak ez duela inolako baldintza teknikorik jarri proiektu hori egiteko. Proiektu hau egiteko borondatea, gogoia eta bultzada bai, baina proiektua ETSk egin duela argitu du. Gaineratu du ETSk proiektu hau enkargatu zuela sarrera eman ziola udalean 2017ko urtarrilaren 27an eta bertan esaten dutela dio: *“Por la presente se informa de que Euskal Trenbide Sarea ha encargado a la ingeniería Girder la dirección del proyecto constructivo de la supresión de los pasos a nivel de Txara y Txikiardi de la línea Bilbao-Donostia”*, esan bezala ETSk egin zuela proiektua errepikatu du. Udal teknikariei oinarrizko ideia edo proiektu bat iritsi zitzaizela esan du, eta bertan semaforoak planteatzen zirela. Aukera horri ezezkoa esan zienak



Usurbilgo Udala

ez zirela udal teknikariak izan argitu du, baizik eta Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako teknikariek esan zutela ez zutela begi onez ikusten semaforoak jartzea. Proiektua aldatu egin zela adierazi du eta berrian goiko pasarela jarri zela bai trenbidea eta bai errepidearen gainetik.

Beraz, alkateak ez duela ezer bultzatu ez bada soluzio integral bat, hori bai baina ez nolakoa izan behar den soluzioa.

Mozioan gauza gehiago ere esaten dituztela esan du alkateak. Esaten dutela dio ez dela zentzuzkoa 2,4 milioi euroko oinezkoen pasabide bat gauzatzea. Horri erantzunez adierazi du berak ez dakielako zer den zentzuzkoa edo ez, baina egunero prentsa irakurtzen duela eta bertan ikusten duela ze proiektu egiten diren. 2018ko lehen hiruhilekoan esan zaiela dio, adibidez, Jaizkibelen Diputazioak 2 milioi euro gastatuko dituela horrelako pasabide batekin, Eibar-Maltzagan bost pasarela egingo dituela Diputazioak 5 milioi euroko kostuarekin. Horiek ikusita galdetzen du zergatik den proiektu hau holako astakeria eta, bestetik, hori ez bada soluzio egokia arazo hori konpontzeko alternatiba zein den esan beharko dutela.

Mozioan alderdi interesak ere aipatzen dituztela esan du. Berak alderdiak ez dituela inoiz aipatu, udal edo herri bezala funtzionatzea eskatu duela argitu du. Pasabide hori hobetzea denon onerako izango dela dio.

Proiektuaren izaerari buruz adierazi du exekuzio proiektu bat dela, ez dela oinarrizko proiektu txiki bat eta hirigintza sailean kontsultatzeko aukera dutela jakinarazi die. Argibide gisa aipatu du 15 eranskin dituela proiektuak eta zerrendatu egin ditu. Puntu honetara iritsita, kaxoi batean sartzea eta esatea ez dutela proiektua finantzatzeko, usurbildarrontzat oso zigor gogorra dela uste du.

Mozioaren hurrengo parrafoan aipatzen dutela dio EH Bilduk ez duela ezer egin aurreko legealdian. Alkateak taula bat erakutsi die esanez bertan ikusten dela Foru Aldundiaren diru-sarrerak zenbatekoak diren eta beste batean ikusten dela Bizikletaren Mugikortasunean zenbaterainoko inbertsioak egin diren. Argi eta garbi ikusten dela dio bizikletan inbertitzen zena orain inbertitzen dena baino askoz gehiago zela. Gainera 2017an izendatutako inbertsioak ez zirela gastatu aipatu du.

Bestalde, urte berean Foru Aldundiak Usurbilgo Udalarekin hartutako konpromiso bat ez duela bete esan du, Txikierrainoko bide-gorriaren zatia egitea, hain zuzen ere. Batzar Nagusietan aho batez onartutako Plan Sektorialean ikusten zela dio lehenengo fasean hori egingo zela eta bigarren fasean Usurbileraino iritsiko zirela, bigarren fase hau 2021ean bukatuz. 2018an gaudela dio eta ez dagoela ez proiekturik, ez egitasmorik ez eta borondaterik ere. Pasatzen utzi ezin den aukera paregabea dela dio bai Mugikortasun sailak bai Bide Azpiegitura sailak bai ETSk eta bai Udalak soluzio egoki bat emateko.

Bilduk, oinezkoen eta bizikleten soluzioa ekarriz lana egin zuela esan du, eta falta den zatia orain egitea eskatu du.



Usurbilgo Udala

Mozioan egiten dituzten hiru eskaerak Udalari egiten dizkiotela azpimarratu du eta konponbidea udalari bakarrik eskatu behar al zaion galdetu du. Deigarria egiten zaiola adierazi du.

Lehenengo eskaeran oso garbi azaltzen dutela dio Udalak egin behar duela planteaturiko pasabide semaforizatuaren alde. Foru Aldunditik bidali duten soluzio horri buruzko zirriborroa erakutsi du. Galdetu du ea hau den, besterik gabe, udalak babestu behar duen soluzioa. Honen aurrean gainera, bakoitza bere aldetik bere soluzioa planteatzen ari dela gaineratu du.

Jarraian, Bide Azpiegituretako zuzendaria den Mikel Uribeetxeberriari martxoa hasieran bidali zion mezua irakurri du: “Kaixo Mikel. Azkeneko bileran hitz egindakoa berretsiz, Usurbilgo Udalarentzat ezinbestekoa da Troiako pasabidearen gaiari modu integral batean heltzea. Puntu horretan, hiru gunee edo pasabide daude, N-634 gurutzatzea, trenbidearen paso-nibela eta Ugaldea industrialderako igarobidea. Soluzioak, edozein dela ere, oinezkoen eta bizikleten zirkulazio seguru eta egokia ahalbidetu beharko luke. Derrigorrezkoa da, beraz, proiektu bateratu eta koordinatu bat martxan jartzea eta administrazioen arteko elkarlana. Usurbilgo Udalak ez dio ezezkorik esan baldintza horiek betetzen dituen inolako proposamenei. Bileran esan nizan bezala, gu prest gaude ibilbidearen jarraipena gure gain hartzeko horretarako egoki ikusten den moduan. Ez dugu begi onez ikusten, halere, bakoitza bere aldetik aritzea, horregatik bilera bat egitea nahi genuke. Bilera horretan Foru Aldundiak, ETSk eta Udalak egon beharko lukete, eta bertan hitz egin beharko genuke kontu hauetaz. Datorren asteko agenda moldatuko nuke bilera hori egiteko”. Hor bi egun proposatu zizkiola aipatu du eta jarraitu du, “eta beste egun bat proposatzen badidazu saiatuko naiz agenda egokitzen. Gure artean adostutako hitzordua ETSra pasako nuke ea haiek ere posible duten. Zure berrien zain geratzen naiz. Bitartean izan ondo”.

Tonua hau dela esan du legealdi hasieratik bai Foru Aldundiarekin eta baita ETSrekin erabilitakoa. Egin dituzten bilera guztietan beraiek ibili direla dio bati eta besteari deitu. Hori ez bada elkarlana bultzatzea eta borondatea erakustea, orduan ez dakiela zer den adierazi du. Hau guztia horrela, EAJk dioena irakurtzea oso gogorra eta desegokia dela uste du.

Beraz, uste du badaudela arrazoiak pentsatzeko irtenbide semaforizatu horrek ez duela beraien arazoa besterik gabe konponduko eta askoz ere lanketa serioago bat egin beharra dutela.

Bigarren puntuan esaten denari buruz esan du orain artean beraien eskuduntzako eta ardurapeko gaiak ez diela inoiz muzin egin eta aurrerantzean ezta ere.

Hirugarren puntuari buruz esan du ez dakiela ondo ulertzen ote duen, zeren ez baitio zentzurik hartzen. Mozioan udal gobernari eskatzen diote ETSrekin trenbidea gurutzatzeko pasoaren soluzioa, finantzaketa eta epeak berretsi ditzala, “guk zer egin behar dugu?” galdetu du alkateak. Hau da, egin behar dutena zer den dio ETSrekin dioten guzti hori finkatu, era berean, esaten zaienean Foru Aldundiak ez duela dirurik jarriko eta ETSk jarri beharko duela, ea hori berretsi behar duten galdetu du berriz ere. Hirugarren puntu hau udalaren eskumenetik guztiz ateratzen dela adierazi du. Soilik



Usurbilgo Udala

dakitena da ETS prest zegoela aurrerapauso bat emateko eta hori lorpen handitzat zutela azpimarratu du.

Beraz, guzti hau kontutan hartuta, testu hau ezin dutela onartu adierazi du. Errealitatearekin zerikusirik ez duela uste dute, iraingarria dela egin duten lanarentzat eta, era berean, iruditzen zaio soluzio baten bila abiatu beharko dutela, baina baldintza batzuk beteta. Baldintza horiek direla dio Troiak soluzio integral bat eskatzen duela, halaber administrazioen arteko inplikazio eta koordinazioa eskatzen duela eta hemen beste aldera begiratzea ez duela balio. Honen harira adierazi du hor badirela konpromiso batzuk, besteak beste, Foru Aldundiaren Mugikortasun planak Usurbilekin duen betebeharreko konpromisoa.

Legealdi honetan gertatutakoa gogorarazi du, hain zuzen ere, Lasarteko futbol zelaiaren eskaera zela-eta, Usurbilgo Udalak esan zuen mugikortasun plana burutu beharra zegoela, eta hori eskatzeagatik ia-ia txantajistak zirela leporatu zitzaizela gogorarazi du.

Gainontzeko batzarkideei hitza eman die.

Mirari Azurmendik hitza hartu du eta adierazi du Hirigintza batzordean Carlos eta biak egon zirela eta bertan ETSrekin izandako bileraren berri eman zitzaizela. Momentu horretan aurrekontuari buruz galdetu zutela eta esandakoaren arabera proiektu hori ez zuten eskuartean, plano batzuk zituzten eta gutxi gorabeherako aurrekontu bat.

Bestalde, udal taldeak mahai gaineratu zuela dio soluzio bezala semaforo batekin nahikoa zutela, hori horrela izanda galdetu zitzaizela dio ea zer suposatu zezakeen soluzioa parteka ahalbideratzea. Gaur egun proiektua udaletxean baldin badago, hobe dio, zeren orain alkateak irakurri dituen dokumentu horiek denak osatzen direnean, zehaztasun gehiagorekin denen artean ikusi eta aztertu ahal izango dutela adierazi du.

Mugikortasun plana dela-eta, adierazi du udaletxe honetan azterketa bat egin dela, analisi bat egin zela Kale Irekietan, eta bertan puntu batzuk identifikatu zirela, tartean Troiako pasabidea. Horrela, identifikatutako puntuetan irtenbideak garatu beharko zirela esan zen, betiere beharren eta baliabideen arabera.

Hirigintza batzordean ere aipatu zela dio Troiako pasabidearen kasuan, aurreko eta ondorengo kontinuidatea ez zegoela argi, udaletxearen aldetik garatu gabe dagoela gaineratu du eta batzordean ez zela garbi agertu soluzio bat.

Alkateak dionean tonu bat erabili behar dela, Mirarik dio hori noski garrantzitsua dela, baina gauza aurrera atera nahi denean, hartu den postura ez dela arduratsua esan du. Hirigintza batzordea elkarlanerako hor dagoela gaineratu du. Udaletxea azkarregi joan dela uste du eta erreflexio bat egitera gonbidatu ditu.

Alkateak argitu du proiektuaren aurkezpena hirigintza-buruak egin zuela eta esan zuela ez zeukala proiektua "hemen", hau da, batzordean. Galdetu zitzaizenean zenbateko



Usurbilgo Udala

aurrekontua zuen, erantzun zitzaiela 2,4 milioi euro ingurukoa. Ordurako proiektua udalean zegoela argitu du.

Mirari Azurmendik zehaztu du aurrekontua eskatu zutela xehetasunak ikusteko, kopuru hori nondik ateratzen zen ikusteko.

Alkateak esan du askotan esan zaiela batzordean aurkezten diren proiektuen berri izan nahi badute, hirigintza sailera bertaratzeko, eskatzeko eta emango zaizkiela. Ez dutela ezer ezkutatzeko esan du, alderantziz.

Mirarik esan dio ez duela esan ezer ezkutatzeko zutenik.

Alkateak esan du aurkezpenera plano batzuk ekarri zirela, horietan proiektuaren ideia jasotzen delako eta azaltzeko samurragoak direlako.

Mirarik esan duenari buruz bileran ez zela garbi geratu zer nolako jarraipena emango zitzaien, hori ez zela agertu dio besteak beste oraindik ez dielako inork esan Usurbilgo Udalak zer aportatu behar duen proiektu horretan. Lehen erakutsitako planoan kolore ezberdin batean margotuta espaloi moduko bat agertzen dela esan du eta ulertzen dela dio galdetzen zaiela ea Usurbilgo Udalak hor espaloi bat egingo lukeen. Lehen irakurri duen mezuan zion moduan beren gain hartzeko prest daude. Baina gaineratu du ez dakiela ohartzen diren eskuarteetan duten proiektuak zer suposatzen duen eta zer nolako aukera den, izan ere ETS bezalako erakunde batek egin du hau eta aurrera egiteko prestutasuna azaldu dute, Mugikortasun sailari eta Bide Azpiegituretako sailari dagokienean. Noski asko mintu zela, zeren ezezkoa ez baitzion Diputazioak komunikatu; Diputazioak ez zuela aurrera egin nahi ETSkoekin egin zuen bileran jakin zuela esan du.

Mirari Azurmendik adierazi dio alkateari Hirigintzako bileran berak propio eta zuzen galdetu ziola ea udaletxeak ze diru kopuru jartzeko asmoa zuen. Momentuan erantzun zitzaiola esan du ez zeukatela dirua jartzeko asmorik, diru guztia hemen herriko pasabidean jartzeko asmoa zeukatela, ulertzen zutelako hemen tokatzen zela eta han Troian ez zela tokatzen.

Alkateak erantzun dio gogoan duela Mirariren galdera eta bere erantzuna, baina proiektu honetan ez dela aipatzen dio zer nolako irtenbidea ematen zaion gero hortik aterata, azpimarratu du hor ez dagoela udal eskuduntzako ezer. N-634 errepidea izanik, Diputazioaren eskuduntza dela esan du eta hor pasatzen den bidegorria plan sektorialean dagoen sare foraleko bidegorria da, beraz, Diputazioaren eskumenekoa. Trenbideko pasabidea, berriz, ETSrena dela gaineratu du. Besteek eman behar diotela bultzada uste du, eta udalaren kolaborazioa eskatuko balute, joku horretan sartu daitezkeela dio.





Usurbilgo Udala

Mirari Azurmendik esan du hortik aurrerako dena Udalarena dela, eta horri ze irtenbide eman behar zaion oraindik argitu gabe dagoela. Irtenbideari buruz hitz egin zutela dio eta posibilitate desberdinak ikusten zituztela eta denak zailak.

Alkateak esan dio Mirarik badakiela hemen arazoa ez dela planteatzen eskailera jaitsi edo arranpa jaitsi eta hortik aurrera, arazoa dela dio horraino iristeko arazoa daukatela. Gaineratu du EAJk diola Udala dela bakarrik jarri nahi ez duena, eta hori ere gezurra dela salatu du. Esan zutena izan zen beste lekuetan eta udalari zegokienean jartzeko prest zeudela, baina Troiako kasuan ez duela ezer aportatuko esan duena beste bat izan dela gaineratu du.

Jone Urdanpilletak esan du eskumenak ez direla Udalarenak eta horregatik ez dela aurreikusten aportaziorik. Eskumenak beste batzuenak direla eta hori Ate Irekietan garbi geratu zela dio.

EAJk testuan astakeriatzat jotzen duela dio 2,4 milioiko gastu hori eta halako obrak egiten direla defendatu du Jonek. Salatu du EAJk Diputazioari ez diola eskatzen Usurbilen inbertitzeko.

Carlos Pérezek adierazi du *“no entiendo cómo se puede ir a una negociación diciendo “es que ya nos toca”, el alcalde no puede ir con condiciones de ese tipo. Nosotros no conocemos las cuentas de Diputación ni qué proyectos tienen. El Ayuntamiento tiene que negociar con la Diputación y seguir insistiendo. Por otra parte, entiendo que estás afectado y que te sientes mal, pero cuando te sientas a negociar, y más en tu cargo...”*.

Alkateak erantzun dio esaten duenean “tokatzen zaigula”, ez dela bakarrik irudipen bat, plan sektorial bat dagoelako esaten du. Azaldu du plan sektorial horretan Urbileraino iritsi direla, Urbiletik honainoko plangintza bat egin behar dute, Mugikortasun sailean ere proiektu bat egin dezatela eskatu dute eta ez dute lortu. Plan sektoriala Batzar Nagusietan alderdi guztiek onartuta dagoela gogorarazi du. Beraz, horregatik dio gure txanda dela, orain Usurbilera iritsi behar duela. Bestalde, askotan insistitu duela adierazi du.

Alkateak uste du herri klabeetan funtzionatu behar dutela. Gaur hemendik ezin dutela atera pin-pan-pun irudi bat emanda, usurbildarrek guk ahalegin bat egitea merezi dutela uste du. Hori horrela, proposamen bat egin du, talde bat osatzea, eta bera prest dagoela dio lantalde horretako partaide izateko.

Mirarik adierazi du Hirigintza batzorde bat dutela eta bere ustez lanerako lekurik proposena hori dela. Ez duena ulertzen da zergatik beti batzordetik kanpo sortzen diren lantaldeak, ekimenak, etab.



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio Hirigintza batzordea izatearekin ez dagoela arazorik, gainera irekiak direla. Bere proposamenaren arrazoi bakarra dela dio akaso lantalde horrek dinamika biziago bat behar duela. Baina arazoa ez dela hori, arazoa da ea prest dauden gai honekin lanketa komun bat egiteko eta gaiari soluzio erreal bat emateko.

Tonuari dagokionean, Mirarik adierazi du hitzak neurtu egin behar direla, beraiek ez direla gezurteroak. Udaletxetik errespetuzko jarrerak bultzatu behar direla uste du.

Alkateak erantzun dio Noauan berari buruz esan zituztenak eta errealitateak ez duela zerikusirik.

Fermin Orue-Echevarriak aipatu du, batetik, Foru Aldundiko Mugikortasun sailari kritika egin zaiola eta tokatzen zaion aldetik gestio batzuk egingo dituela jakiteko bidegorriaren kontua nola dagoen. Bestetik, Troiako soluzioa dela eta, adierazi du agian soluziorik egokiena ez dela izango baina batzuetan eta, batez ere, inbertsio handiagoa eskatzen badu, beti ez dela posible izaten. Pauso bat aurrera eman eta semaforoa eta trenbideko barrera jarri ezker, hor ibiltzen den jendearen segurtasunaren aldetik ea zerbait irabaziko litzatekeen galdetu du. Soluzio hau nahiz eta probisionalki izan zerbait aurreratzen dutela uste du.

Jone Urdanpilletak adierazi du bertatik maiz pasatzen dela eta bertan barrera eta semaforoa jartzen badira, bera ez dela joango dio, bere bizitza arriskuan jarriko lukeelako.

Josune Estellak ere adierazi du bera ere maiz pasatzen dela eta soluzio hori ez litzatekeela batere segurua izango. Semaforoarekin bidea gurutzatu eta barrerak jaitziko balira, bertan egoteko lekurik ez dagoela dio eta hori oso arriskutsua dela.

Alkateak dio soluzio horri buruz herritarrek ze iritzi duten jakin nahiko lukeela eta hori dela proposatzen duena. Gaineratu du poligonora oinez doazenei ez zaiela inongo irtenbiderik ematen.

Jone Urdanpilletak dio berak ez dakiela finantziarioa ze portzentaietan izan beharko lukeen, administrazio batek baino gehiagok dugula parte bertan. Era berean, salatu du Usurbil dela herri bakarra beste herri batekin bidegorri bitartez loturarik ez duena.

Carlos Pérezek adierazi du *“como dice Fermín, si hay que hacer unos arreglos, hay que hacer unos arreglos. Sigo pensando que hay que sentarse y ver qué se puede hacer. Hay otras Administraciones que tendrán sus necesidades.”*



Usurbilgo Udala

Fermín Orue-Echevarriak adierazi du uste zuela zerbait hobetuko zela, ez azken soluzioa edo egokiena izatea baina zerbait bai behintzat. Harritu egiten dela dio Diputazioak soluzio bezala semaforoa aurkeztea eta besteek dioten moduan hain arriskutsua izatea.

Calors Pérezek esan dio “el paso es criminal”.

Jarraian, mozioa bozkatzera pasa dira.

“Esp.zk.: ID.13/2018-0103

2018ko martxoaren 19an izandako Antolakuntza Batzordean **“Troiaiko pasabidea gauzatzea” mozioa** aztertu zen eta gehiengoaren aurkako botoarekin (aldeko botoak: Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria; aukako botoak: Xabier Arregi, Irene Gartzia eta Jone Urdanpilleta) ez zen onartu.

Antolakuntza batzordeak Udalbatzarrera bideratu zuen mozioa, azken honek erabakia hartu zezan.

Orain, batzarkideek mozioa aztertu dute eta gehiengoaren aurkako botoarekin “Troiaiko pasabidea gauzatzea” mozioa ez dute onartu.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisolli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Beraz, mozioa ez da onartu.

### **Gai ordenaz kanpo:**

### **KATALUNIAKO ATXILOKETAK DIRELA ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Alkateak adierazi du gai ordenaz kanpo, Kataluniako atxiloketak direla-eta, mozio bat aurkeztu nahi dutela.

Mozioaren testua banatu da batzarkideen artean.



Usurbilgo Udala

Alkateak mozioa hain berandu ekartzea justifikatu du esanez azkenengo gertakariak duela gutxi gertatu direla, ondorioz, mozioa bera ere oraintxe idatzi dela eta ezin izan diela gainontzeko udal taldeei pasa.

Batzarkideek, gehiengoz (Fermin Orue-Echevarriaren abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin) puntu hau gai-zerrendan sartzea erabaki dute.

Xuban Zubiriak mozioa irakurri du.

Jarraian, EH Bildu udal taldeak aurkeztutako adierazpena aztertu da eta gehiengoarekin aldeko botoarekin onartu da. Honela dio onartutako adierazpen instituzionalak:

“Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassa kartzeleratzea dimensio politiko izugarria duen gertakaria da. Herritarrek aukeratutako ordezkari politikoak atxilo hartzea onartezina da demokrazian. Usurbilgo Udalak, batetik, kezka eta erabateko arbuioa adierazten du kartzelaratzeko horientatik, eta bestetik pertsona horien oinarrizko printzipio demokratikoak urratzen direla salatzen du. Soilik arrazoi politikoen motibazioa eta bultzada dago atxilotze eta kartzelaratzeko horien atzetik.

Usurbilgo Udalak babesa eta elkartasuna adierazten die Jordi, Carme, Raül, Josep eta Dolorsi, bai eta beste kartzeleratuei eta atzerrira ihes egindako guztiei. Denak libre utz ditzaten eskatzen dugu buruz, bihotzez, eta irmoki.

Era berean arbuiatzen dugu Carles Puigdemonten atxiloketa, erabaki horrek ere oinarrizko eskubide zibil eta politikoak urratzen dituelako. Carles askatzea eta euroagindua bertan behera uztea eskatzen dugu.

Estatu espainolari eskatzen diogu oinarrizko askatasunen aurkako estrategia errepresioa bertan behera utz dezala, demokraziaren funtsezko printzipioen kontrakoa delako.

Kataluniari elkartasuna helarazi nahi diogu, arazo politikoaren eta errepresioaren jomuga Kataluniako gizarte osoa baita.

Kataluniak, Euskal Herriak eta munduko gainerako herriek halaxe, bere etorkizun politikoa erabakitzeko zilegitasun demokratikoa du, herritarrek demokratikoki adierazi eta erabakitzen dutenaren arabera.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Aurkako botoak: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, adierazpena gehiengoz onartu da.

#### **4.- GALDERA-ESKAERAK.**

Ez da galdera edo eskaerarik izan.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:02etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**